

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2009ko Kontu Orokorraren fiskalizazio txostena mamitu du; txostena Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Foru Erakunde Autonomoen kontuek ez ezik (Administrazio Sektore Publikoa), Foru Enpresen Erakunde Publikoen eta Foru Elkarte Merkataritzakoen kontuek (Enpresa Sektore Publikoa) osatzen dute. Txostena Osoko kideen gehiengoak onetsi du.

Txostenak kontularitza eta legezotasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, kudeaketa hobetzeko gomendioak eta Foru Sektore Publikoaren finantza egoera aztertzen du.

Sektore Publiko Administratiboa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2009ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan Aldundiari dagokionez jaso diren hainbat akats salbuesita. Foru Erakunde Autonomoetan ez da salbuespenik jaso.

Honela, bada, Aldundiak kasazioko errekurtsioa aurkeztu du Europako Erkidegoetako Auzitegiaren aurrean aurkeztutako errekurtsioen gaineko zalantza egoera azpimarratu du, 3/1996 eta 7/1996 Foru Arauetan ezarritako kenkari eta hobari fiskalei dagokienez, txosten hau jaulki dugun datan ebatzi gabe daudenak. Bestalde, Europako Batzordeak ez du iritzirik plazaratu laguntzak salbuespen fiskal modura berreskuratzeari dagokionez eta Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean demanda aurkeztu du arestian aipatutako kenkari eta hobari fiskalak berreskuratzeko beharrezko diren neurriak ez hartu izanaren aurrean; demanda hau ebazteke dago txostena jaulki den datan.

Sarrera fiskalei buruzko salbuespenetan jakinarazi da 52 zergapekori 65,9 milioi euro egiten dituzten zerga zorrak ordaintzeko gerorapenak eman zaizkiela, 2009ko ekitaldirako legez ezarritakoa baino interes tipo txikiagoarekin; horiek emateko, foru arautegiak aurreikusten dituen baldintza bereziak baliatu dira, baina era berean

azpimarratu da berandutza interesak guztientzat bat bera izan behar dutela dioen jurisprudentzia dagoela.

Administrazioko kontratazioaren fiskalizazioan, akatsak nagusiki kontratuak zatikatzeko egokitasun eza edo prozedura negoziatua eta kontratu txikiaren moldea erabiltzea dira. Bereziki azpimarratu du 2007an 3,8 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako obra kontratu bat birritan aldatu dela eta horren ondorioz, esleitutako zenbatekoa % 130 gehitu dela; horrek urratu egiten ditu kontratazio araudian jasotako lehiaketa printzipioak, itxuraldatu egiten baitu bai kontratuaren xedea, bai kontratuaren kopuru ekonomikoa ere.

Bestalde, Diru-laguntzak emateari dagokionez, BFAk zuzenean eta deialdi publikoa egiteko ezintasuna egiaztatu gabe 14,7 milioi euroko 33 diru-laguntza eman ditu.

Bestalde, 2009an BFAk landa lurak erosteko 2,2 milioi euroko ondare-eragiketa egin du; ordea, espedientean ez da erasota geratu ondasunen berezitasuna zuzeneko erosketa egiteko lehia prozedura aplikatu gabe. .

BFAren Kontuari dagokionez, HKEEK uste du egoki aurkezten duela 2009ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa ez ezik, baita ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala ere, hainbat akats salbuetsita; izan ere, erakunde fiskalizatzaileak ez baititu onartu eragiketarako erregistratzeko baliatutako irizpideak eta horren ondorioz, Metatutako Emaizta 89,5 milioi euro murriztu da eta urteanitzeko hainbat gastu ez ditu barne hartu. Foru Erakunde Autonomoetan ez da salbuespenik jaso.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu atal batean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Akats hauek nagusiki aurrekontu eta kontularitzako alderdiei dagozkie, zerga zorrak geroratzean hainbat izapide betetzeari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari eta diru-laguntzen emakidari.

BFAren finantza egoerari dagokionez, Epaitegiak ondorioztatu du 2009ko ekitaldian sarrera arruntek behera egin izanak batetik, eta gastu arrunta aurreko ekitaldietan baino

erritmo biziagoan gehitu izanak bestetik, eragotzi egin duela emaitza arrunta behar hainbatekoa izatea kapitalezko eragiketen exekuzio garbia finantzatzeko eta zorpetzea areagotzea ekarri duela. Gainera, 2010eko aurrekontuek zorra % 30 gehitzea aurreikusten dute, 2009ko ekitaldiaren itxieraren aldean.

Enpresa Sektore Publikoa

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, 2009ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu da, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, Epaitegiak azaleratu du hiru sozietate publikok gainditu egin dituztela foru arautegiak finkatzen dituen izaera mugagarriko aurrekontuko izendapenak. Gainera, langileriari dagokionez eta hamar sozietate publikoren kasuan, ezin egiaztatu izan da berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bete izana berariaz gaitutako enpresen bidez gauzatutako langile hautaketan; izan ere, puntuen arabera hurrenkeratutako izangaien azken zerrenda proposatu baizik ez baitute egiten. 2009ko ekitaldian prozedura hau baliatuta egindako kontratazioek 48 langile eragiten dituzte. Ondasun eta zerbitzuen kontratazioan, unean uneko ez-betetzeak azaleratu dira bi sozietate publikotan.

Ondare eragiketei dagokienez, akatsak azaleratu dira Bizkailur, SA sozietate publikoan, Gatican 2,9 milioi euroko zenbatekoarekin landa izaerako lursail baten balorazioan. Berebat, Sozietate honek berak enpresa pribatu bati 2,6 milioi euroko lursailak erosi dizkio (BEZ barne); kopuru hori Bizkailur-ek 2008an enpresa horri aipatutako lursailak erosteko eman zion maileguaren zenbateko berekoa da; azkenean, 1,9 milioi euroko zenbatekoarekin erosi zituen lursail horiek. Epaitegiak azpimarratu du eragiketa Administrazio Kontseiluari horren berri eman gabe gauzatu dela, prezioa justifikatuko duen tasaziorik egin gabe eta Sozietateak lursailak erosteko eragiketan enpresaren esku-hartzea justifikatu gabe.

Enpresa Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietateen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du egoki erakusten dutela 2009ko ekitaldiaren jarduera ekonomikoa ez ezik, baita ekitaldi itxierako ondarearen eta finantza egoeraren isla leiala

ere. Kontuetan zalantzak erakutsi dituzten sozietate bakarrak Bizkailur, SA eta Interbiak, SA dira; azken honek soil-soilik Auzitegi Gorenaren epaiaren zabala zehaztuko duten ebazpen judizial ezaren ondorioz, A-8 autobidearen erabilera kanonari dagokionez.

Bizkailur-ekin loturik, HKEEK azpimarratu du eraikuntza eta higiezinaren sektorearen krisia aintzat hartuta, zalantza dagoela Sozietatearen “Egoitza izaerako lurzoru eta eraikuntzen” izakinekin lotutako aktiboen egikaritzea eta pasiboen likidazioari dagokionez; horiek guztiek ekitaldi itxieran 79 milioi euroko balioa dute. Berebat, zalantza dago Epe luzeko finantza inbertsioetan barne hartutako aktiboen balorazioari dagokionez, 15 milioi eurokoak, eta Industri izaerako izakinei dagokienez, 19 milioi eurokoak, hauek. Bestalde, Sozietateak 2006ko abenduan enpresa pribatu batekin bi hitzarmen izenpetu zituen, Habidite izeneko sistema berri baten bitartez eraikinen eraikuntza integralera emandako lantegi bat egiteko. Enpresa pribatu honek jurisdikzio bidearen aurreko erreklamazioa aurkeztu zuen eta horren gaineko ebazpenak Sozietatearen kontuetan izan dezakeen eraginari buruzko zalantza dago. Honek guztiak lotura zuzena du Europar Batasuneko Tratatuarekiko hitzarmenen bateragarritasunari buruz Europako Batzordeak egindako ikerketarekin eta txosten hau amaitu dugun datan amaitu gabe dagoena.

Bestalde, Epaitegiak fiskalizazioan zehar azaleratutako akatsak barne hartu ditu atal batean, ekonomia-finantza jardueran buru egiten duten printzipioak betetzea oztopatu ez badute ere, kudeaketa hobetzeko mahairatu nahi izan direnak. Akats horiek nagusiki, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari eta langile gastuei dagozkie; berebat, sozietateren bati dagozkion akats txikiak aurkitu dira Aurrekontu eta Zorpetze gaietan.

Finantza gaietan, HKEEK jakinarazi du Aldundiak 55 milioi euro eman dituela 2009ko ekitaldian Enpresa Sektore Publikoarentzat: 45 milioi euro kapitala handiagotuta, eta 10 milioi euro sozietate horien galerak berdintzeko. Ondoren, 2009ko ekitaldian zorpetzea % 56 gehitu dela aipatzen du eta hortik kopururik handiena Interbiak, SAri dagokiola, azpiegiturak egin ahal izateko. Epe laburreko finantzaketari dagokionez azpimarratu du Bizkailur, SA, Aparkabisa, SA eta Interbiak, SA, moduko sozietateetan finantza egoerak agerian uzten duela aktiboa ez dela behar hainbatekoa epe laburrera pasiboari aurre egiteko. Amaitzeko, ekitaldiaren emaitzari erreparatuta, adierazi du Enpresa Sektore Publikoaren 2009ko ekitaldiaren galerak 17 milioi eurokoak izan direla eta Sektore horren ustiaketa sarreretatik % 43 lotutako enpresei zerbitzuak emateari dagozkiola.